

HAU @ HAU

HAU PTTU HAU-Euskaldunen konpartsaren aldizkaria 4.366. 1.997.eko Urtia-Azaroa

HAU AL DA NORMALTASUNA ?....BA APURTU NORMALTASUNA !!!.

Udazkeneko egun hauetan gure herrira normaltasuna itzultzen omen da. Berrito lanera, ikastetxera edo INEMeko lerrora, egunero altxatu, zure gorputza alde batetik bestera eramán, gauean ohera eta hurrengo egunean berdin. Izen bitxia duen museo bat eraiki dutela gure herrian, Juancarren alaba ezkondu dela, eta Diana izeneko neska txotxolo batek ehundoko oxtia hartu eta hil dela baino ez duzu ikusten telebistan.

Txo, egiozu fabore bat zure buruari apurtu normaltasun hori, amatatu telebista, irten kalera, entzun zure herriko jendeari, irakurri egunkariak,

kartelak eta fanzinak, entzun irrati librean eta mugi ipurdia. milaka gauza egiteko bait daude.

Guk gure aldetik ez dugu atsederik hartzen, ekintzak burutzen jarraitzen bait dugu, ale honetan daukazue hurrengo ekintzen zerrenda eta gehiago prestatzen gabiltza. Saiatu behar gara gure lana urte osokoa izan dadin eta horretarako guztion laguntza beharrezkoa da. Bestaldetik nahiz eta pixkanaka pixkanaka konpartsakideak animatzen ari diren oraindik zuen aldetik ez dugu behar beste kolaborazio jasotzen aldizkari hau egiteko.

Orri hauek konpartsaren benetazko informazio sarea izateko guztien parte hartzea beharrezkoa da bestela ale bat aurrekoaren fotokopia izango da (joker rolloa agortzen zaidala).

Ikusiko duzue ale hau ez da hilabete batekoa baizik eta bitokoa, horrek ez du esan nahi gauzak egiteko eta esateko ez daudenik baizik eta ez zaretela hurbildu eta adierazi.

Bukatzeko barkatu udazkeneko artikulua deprimente hau, alai dezagun aurpegia, joan gaitezen hurrengo jaietara edo hurrengo manifestara eta apur dezagun espainolen normaltasun hau.

Konpar-
tsakideen
kolaborazioak

....2

Ekintza
batzordea

.....3

Euskalduna
naiz eta
harro nago

.....4

EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK

Duela urtebete Euskal Herrian Euskaraz euskeraren inguruan ematen diren gezurrak agerian uzteko komiki-txosten bat plazaratu zuen.

Egoera bati aurre egiteko lehenengo urratsa arazoa ezagutzea da beraz HAU...HAU-tik egoera

hori ezagutzeko bide emango dizuegu komiki-txosten hori atalka plazaratuz. Ale bakoitzean erdaldunek inposatzen diguten kontzeptu bati buelta emango diogu. Hasteko azkeneko orrian duzue sarrera eta lehenengo egoera.



KONPARTSAKIDEEN KOLABORAZIOAK

Gure konpartsan ikasle asko omen dago eta mutil gutxi, ikasle guztiei (edo gutxienez ikastea gustokoa ez dutenentzako) eta punteria txarreko mutikoei zuzendutako aholku batzuk igorri dizkigute. Hori bai, aholku hauek egin dituen konpartsakideak ikasketak bukatu berri ditu eta neska dela ziurtatzen dizuet, beraz dirudienez aholku hauek ez doaz berarentzako.

Gizonezko pisontzi maitea :

Aspertuta nago zuen putzu usaintzak garbitzeaz. eta putzu gehiago ez egiteko kontseilu jartzea pentsatu dut zuk kontutan hartuko dituzula esperoz.

- 1- Praketa ireki baino lehen begira ezazu ea tapa altxatuta dagoen.
- 2- Txisa egiterakoan, konproba ezazu zure mangeratxoaren direkzioa ondo dabilen.
- 3- Badakit txisa egitea gozagarria dela, baina txisa egitean ez itzazu begiak itxi.
- 4- Zure txisa errekaeren presioa txikiagotzen denean errepara ezazu direkzio aldaketa.
- 5- Kontuz ibili azkeneko tanta ateratzeko txibilitoa astintzerakoan.
- 6- Bukatutakoan begira ezazu putzurik utzi duzue.
- 7- Putzutxo bat ikusi bezain laster lehortu ezazu papaerarekin.
- 8- Guzti hau egindakoan eman bonbari.

Badakit txisa egiten ari zinen bitartean irakurri duzula guzti hau, eta ia erdia kanpora bota duzula, baina hurrengorako balio izango duela uste dut.

Garbitzaileak

Beno badakigu zuek hain neska mutil azkarrak izanda hemen aipatzen diren hainbat gauza aldeztu aurretik bazenekitela, baina batzutan gogoratzea ez dago txarto, batez ere txis egiterakoan (gogoratu mozkortuta gaudenean arautegi hau ere bete beharko genukela apur bat utopikoa izan arren).



TXISA BARRUAN

Hona hemen euskaltzale batzuk garbitzaileekin bat egiten

Ekintza Batzordearen Berriak

*Honako orri honetan datorren hilabetean egingo diren ekintzen berri emango dizuegu, gauza batzuk oraindik zehaztu behar dira, beraz interesatzen ba zaizue badakizue pisua non dagoen eta honek duen telefonoa (Dendarikale 9, 1-A ,4162730), bertatik pasatu edo deitu eta jakinearen gainean ipiniko zehaztegu.
Besterik gabe hori doa informazioa.*

LESAKAKO GAZTE EGUNA

Azaroak 15-16an,

OSO GARRANTZITSUA: Oraindik ez dakigu egingo den ala ez. Ez soilik bidaia. Gazte Eguna bera oraindik airean dago eta irteera hau Eguzkizaleen eta Askapeñarekin batera egiten dugunez zer egiten den ikusi beharko da. Dena den ez etsi oraindik badago aukera irteera hori egiteko. Interesatzen bazaizu deitu pisura eta han emango dizkizute azkenengo berriak.

Abendurako, joan Santo Tomas Eguna libre hartzen Askapeña eta Eguzkizaleekin batera ospatuko dugu eta.

KONPARTSAREN AFARIA

Azaroak 28an.

Honetara bai ezin duzuela huts egin. Deitu Azaroak 24 baino lehenago pisura eta eman zure izena. Hau oso garrantzitsua da zenbat etorriko zareten jakin behar dugu eta.

EZ UTZ EGIN. KABROIAK !!!!!

HAU PITTU HAU-ren I. Marrazki eta Idazlan Lehiaketa.

Ekintza batzordekook ideia bat garatzen gabiltza, Marrazki eta Idazlan Lehiaketa bat, eta zuen eritzi a jakin nahi dugu, hau dela eta hurrengo lerroetan azalduko dizuegu.

Lehiaketa honen helburua, Bilboko Aste Nagusia, Inauteriak eta beste jaiak euskarari lotzea da. Honetarako Bilboko Euskaltegietan eta Ikastoletan, Lehiaketa bat egin nahi dugu. Adin txikikoen artean (10-11 urterarte) Marrazki Lehiaketa izango litzateke, eta ordea, nagusien eta euskaltegien artean Idazlan Lehiaketa bat.

Gaiari dagokionez, argi eta garbi, Bilboko jaiak eta euskararen ingurukoak izan behar dute. Gure esku gelditzen da sariak aukeratzea (Mari Jaiaren KD, EHE-ren KD, Karpeta, Boligrafoak, eta abar izan daitezke). Zenbat maila egongo diren eta nortzuk izango dira epaileak.

Honekin zera lortu nahi dugu, datorren urteetan gure hiriko gazteak izango direnen artean gure konpartsa ezagutzera ematea eta lehen esan den moduan Bilboko jaiak eta euskararen ideak batzea. Honi buruz zure iritzia eman nahi baduzu, edo lagundu nahi baduzu, jarri zaitez kontaktuan gurekin 4162730ean mezu bat utziz.

EUSKALDUNA NAIZ ETA HARRO NAIGO!!



Euskarak eta euskaldunok urteak dararamatzagu etengabeko erasoak jasotzen. Euskaraz bizitzea erabaki duen euskaldunak inork baino hobekiago ezagutzen ditu era guztietako eraso hauek. Potere gehienek, erdaldunak izanik, erdarekin bat egiten dute, hau babestuz eta euskalduna errudun

sentiaraziz. Bortxatuak izateaz gain, gure borroeroei barkamena eskatu behar al diegu?.

Txostentxo honekin Euskal Herrian Euskaraz herri erakundeak autodefentsarako tresna bat eskeini nahi die euskaldun guztiei. Euskaldunak gara eta eraso ororen gaitik harro gaude!

Euskal Herrian Euskaraz, 1.996.eko Abenduan

Euskara
norberaren
eskubidea da



EUSKARA
EUSKALDUN
GUZTION
ESKUBIDEA
DA, BERAZ
KOLEKTIBOA
DA.

Euskararen berreskurapena:

- biztanle gehienak alde daudelako indibidualki saiatzen ari gara.
- eskubide kolektiboa da:

- + Euskarak lurralde bat behar duelako.
- + Hizkuntza kolektibo eta komunitate baten adierazle eta espresabide delako.
- + Giza komunitate batean berdintasun printzipioa bermatu behar da, horrela hizkuntz komunitateen eskubide kolektiboak ezin dira zapaldu Estatu baten batasuna mantentzeko.

Norberaren hizkuntzaz mintzatzeko eskubide indibiduala ez da inoiz errespetatuko eskubide kolektiboa ez bada errespetatzen.